

SANTA TERESAREN JAIOTZAREN 5. MENDEURRENEAN

FUNDAZIOAK LIBURUAREN SARRERA

Berez-berez irudikatzen dugu Teresa barne-bizitzari emana eta fenomeno mistikoen berri aitoren-entzuleei ematen; era berean, erraz irudika dezakegu Teresa Gaztelako bideetan monasterio berriak fundatzeko joan-etorri nekagarri haietan. Teresaren nortasuna osatzen duten bi ezaugarri dira: batetik, kontenplazioari oso-osoan emana dagoen emakumea; bestetik, berriz, berak bizi zuena besteei eskaintzeko irrikaz dagoena.

Kontenplazio-bizipenak ezin ditu bere barnean, beretzat soilik gorde. Gar hori kutsakorra da, besteengana zabaltzekoa. Teresaren kontenplazioa ez dago bere buruari begira, familia erlijioso berria edo berriztatua sortzeari begira, azken batean apostolutzari begira, baizik. Etengabe Maisuaren oinetan dagoenak, ingurukoei begira ere egon behar du. Teresak ez du aski Betaniako Mariaren jarrera bereganatzeaz; era berean, Marta ere izan nahiko luke. Ebanjelioko pasarte horren aipamena behin baino gehiagotan ageri da haren testuetan, batez ere *Perfekzio Bidean*. Izan ere, haren ideala egoki biltzen duten pertsonaiak dira Betaniako Maria eta Marta, bata bestearen osagarri direnak.

Barruko bultzada horrek, abentura erlijioso liluragarri batera sarrarazten du: karmeldarren erreformari ekingo dio; Karmel Mendiko hasierako espirituaren hari-muturrari heldu nahi dio. Nola gertatu zen hori? Honela dio berak:

“Ni nengoen etxean Jainkoaren mirabe ugari egon arren eta Jainkoa han ongi zerbitzatua izan arren, premia handia zutelako, mojak askotan irteten ziren lotsa onez eta erlijiotasunez egon gintezkeen lekuetara; eta Erregela ere ez zegoen bere hasierako zorrotasunean ezarria, Ordena osoan gordetzen zen bezala baizik, hau da, lasaituriko buldan xedatua zen bezala” (*Biz.* 32, 9).

Ez zen hori Teresari barruak eskatzen ziona. Hainbat aldiz eta kezka aipatzen du etxetik irtete hori. Klausura ez gordezakeak egundoko kezka sortzen zion. Adiskide artean solasean, batean edo bestean, kezka hori azaleratzen zen. Dirudienez, Jauna haien kontzientzian argi eginez eta haiei adore emanaz ari zen. Hurrengo lerroetan hau dio:

“Behin, pertsona batekin nengoela, esan zidan niri eta beste batzuei, ea oinutsen erara moja izateko ez ote ginen gauza izango; monasterio bat ere egin zitekeela. Ni, desira hauetan bero-bero nenbilenez gero, horretaz hitz egiten hasi nintzen andre harekin, (...) hark nire desira bera baitzuen” (ib. 32, 10).

Hau izango zen lehen txinparta. Ávilako San Josereneko fundazioaren harian ziren lagunarteko gogoeta, kezka eta desira horiek. Jauna zebilen tartean.

“Behin, Jauna hartu ondoren, Haren Maiestateak neure indar guztiakin horretan saia nendila agindu zidan, monasterioa egin egingo zelako promesa handiak eginez, eta han atsegin handia izango zuela Berak, eta San Jose izena emateko, beronek zainduko gintuela ate batean eta Andre Mariak bestean, eta Kristo gurekin ibiliko zela, eta distira biziz argi egingo zuen izarra izango zela” (ib. 32, 11).

Hau guztiau lehen fundazioaren, San Jose monasterioaren, harian izan zela esan dugu. Horrela, *Bizitza Liburuan* ongi kokaturik geratuko da. Baina gero beste fundazio batzuk etorriko ziren; gehienak mojenak, baina fraideen batzuk ere bai. Beraz, Ávilako San Joseren fundazioa nola kontatua dagoen ikusiz, ez da harritzekoa Santaren inguruko batzuek gainerako fundazioen kontraera ere, haren antzera eta luma berberaz, idatzi zedin nahi izatea. Hau da A. Ripalda jesulagunaren kasua.

Idazteko agindua

“Ripalda maisua izenekoarekin aitortuz, lehenengo fundazioko liburu hau ikusi zuen, eta gure Jaunaren zerbitzurako izango litzatekeela, iruditu zitzaion, gure Jaunaren ontasunagatik hemen gero egin diren beste zazpi monasterioez idaztea, lehenengo Ordena honetako aita Karmeldar Oinutsen hasierarekin batera, eta horrela egiteko agindu dit” (*Fund. Hitzaurrea 2*).

Gogor egin zitzaion haren esanera makurtzea. Ezingo zuela uste zuen, “arazo ugariengatik, bai gutunak, bai nahitaezko beste zeregin batzuk, nagusiek aginduak zirelako”. Teresa erdi ezinean, Jainkoari otoizka ari zela, hau esan zion Jaunak: *Alaba, obedientziak indarra ematen du*.

Beraz, Fundazioei dagokienez, haiek egitea dator lehenbizi, Jesus Maisuak hartara eraginik eta beste zenbait pertsonak eskaturik, Avilako San Joserenaz hasita, bere bizitzan barrera burutu zituenak. Geroago, fundazio haien historia idaztea etorriko da, obedientziak hartaraturik, bere bizitzako azken urteetan gauzatu zuena. Teresaren idazteko erraztasun, grazia eta ironiaz, Fundazioena gainerako idazkiak baino gustagarriago egiten dela esango nuke, batez ere literatura aldetik begiraturik. Jakina, hor bideetako neke eta sufrikarioak ez dizkigu kontatzen, zeharkako aipamen labur batzuk


izan ezik. Baina fundazioak egingo zituen hirietan era guztietako pertsonekin harremanetan jarri beharra izaten zuen, era askotako egoerak eta abenturak bizi izaten zituzten berak eta berarekin zihoazenek. Neke latzik gabeko fundaziorik ez zela egundo izaten esango digu berak; itsasonztzia haizeak atzetik sakaturik uretan gozo-gozo zihoaneko unerik nekez; bitarte txiki batean hala izan arren, berehala sortzen zela ekaitza. Zergatik hori? Monasterio haietan, berak dioenez, Jainkoa goretsia izatea ezin eraman zuelako deabruak; horregatik, erraz aurkitzen zuen hark bazterrak nahasten hasteko bidea...

Gauzak horrela ikusirik, pertsona hautatu eta hurbilekoei izan ezik, aurrez hirian edo lekuan-lekuan iragarri gabe, etxe-sartzea egitea nahi izaten zuen. Askotan ilunabarrean edo gauean. Behin hori egindakoan, gainerakoa Jaunak hornituko zuelako konfiantza izaten zuen, eta hala izaten zen, baina ez neke latzak eta oztopo handiak igaro gabe, hori ere Jainkoaren borondatea zela sumatzen baitzuen. Hainbat aldiz errepikatzen du ideia hori; hona hemen halako bat:

“Niri, behintzat, oso ongi iruditu zitzaidan, al bait lasterren egitea komeni baitzitzaidun, geure monasterioetatik kanpo geundelako, eta baita kontrakotasunen bat izango ote zen beldur nintzelako ere, lehenengo fundazioan eskarmentua harturik bainengoan. Eta horrela, inork jakin orduko nahi nuen etxe-sartzea eginda egotea, eta horrela egitea erabaki genuen” (*Fund.* 3, 6).

Honela dio beste pasarte batean:

“Etxea gure gogokoa zenez gero, berehala etxe-sartzea egiteko agindu nuen, bertan ezer egin baino lehen, eragozpenik sor ez zedin” (*Fund.* 15, 9).



San Jose komentuan pobretasun osoan bizitzeko Aita Santuaren agiria

Noiz idatzi zituen eta nola sortu zen lan honi ekitea

Fundazioetako liburua Teresaren obretatik azkena da, hil baino egun batzuk lehenago burutu zuena. Ez zituen guztiak jarraian idatzi, tarteka-marteka baizik, bere bizitzaren azken hamar urteetan barrena, 1573tik 1582ra bitartean. Aurrez *Bizitza Liburuaren* 32. kapitulutik 36.era Ávilako San Joseren fundazioaz hasi zuenari jarraipena ematen dio. Orain, liburu berrian, gainerako fundazioen historia idatziko du. Bi liburuak, *Bizitza Liburu*a eta *Fundazioak*, kontaera eta estilo desberdineko liburuak dira eta hartzaileak edo irakurleak ere desberdinak.

Teresak moja eta fraide irakurle karmeldarrei eskaintzen die bere liburu berria. Moja haietako batzuk lagun izan ditu bideetan, asmo eta desiretan, fundazioetan. Fraideak ere ondoan izan ditu gehienetan, bitarteko eginez, aholkuak ema-

nez, beste batzuetan komentuak fundatuz, esaterako, Duruelo, Mancera, Pastrana, Sevilla... Burgosera iritsi arte. Liburua fraide eta moja karmeldar oinutsekin elkarriketa irekia da, baina, batez ere, azken hauek, bere mojak, ditu solaskide hur-bilenak eta liburua emakume-klabean idatzia dago, idazlea emakumea delako eta emakumeentzat idatzia gehienbat. Baina ezarian-ezarian edozein irakurleren begirada erakarriz.

Obraren idazketa

Berak kontatzen du hitzurrean liburuaren sorrera, Jeronimo Ripalda maisuaren aholkuz. Aipatu dugu gorago jesulagunaren bultzada hori. Aholkutzat ez eze, agindutzat hartu zuen berak, eta hasierako duda-muda artean, Jesus Jaunak obediencia indarra ekarri zion gogora eta harrezkero bultzada geldiezina gertatuko zitzaion.

Esan eta egin. Gehiago itxaron gabe, ekin zion idazteari eta erraztasun handiz, hasi eta buka egin zuen, Ávilako San Joseren ondoren fundatu ziren zazpi karmelen historia Salamancako komentuan. Etenaldi bakarrak Pedro de la Banda monasterioa egiteko etxeen saltzaileak eragindakoak izan ziren, gizon kontentagaitza baitzen, etxeen salmenta nahasteko joera zuena, bere zorrozkeria eta auziekin Teresari hainbeste buruhauste sortu zizkiona.

Obraren gainerakoa, fundazio haiek egin ahala, etenaldi luzeekin eta ingurumari eta giro desberdinetan burutuko zuen. Laburbilduz, lau idatzaldi hauek bereiz daitezke:

- Salamancan, 1573an, 1. kapitulutik 9. kapitulura arte.
- Ávilan, 1574an, 10. kapitulutik 19. kapitulura arte.
- Toledon, 1576an, 20. kapitulutik 27. kapitulura arte.
- Bidaietan eta Burgosen, 1580tik 1582ra bitartean, 28. kapitulutik 31.era arte.

Egia esan, Toledon zegoela, 27. kapitulua idatzi zuenean, bukatutzat jo zuen idazkia, karmel fundazio berririk ez zela izango uste baitzuen. Horregatik, 27. kapituluaren ondoren, epilogoia dator.

Hala ere, 1580an, fundazio berriei ekiten die Teresak. Hauek etorriko dira bata bestearen ondorik: *Villanueva de la Jara*, *Palentzia*, *Soria*, *Burgos*. Berak, azkenera arte, beti erakutsi izan zuen Madrilen fundazioa egiteko gogo eta asmoa, hainbat gutunetan ageri denez, baina gertakariak beste ildo bat hartu zuten eta ez zuen gauzaterik izan bizi zela. Zalgurdian aldean eraman ohi zuen fundazioak kontatzen zituen koaderno eta, bideetan eta batez ere Burgosen, kapituluak gehituz joan zen. Horrela sortzen dira azken lau kapituluak (28-31).

Burgostik Alba de Tormeserako azken bidaiari ere aldean darama eskuizkribua eta, bera hiltzen denean, koaderno on Alvaro Mendozaren, frai Luis Leongoaren, Frantzisko Sobrino doktorearen, geroago Valladolideko gotzain izango zenaren, eskuetara iritsiko da, eta azkenik Escorialeko Bibliotekako apaletara. Han gordetzen da gaur egun bikainki zaharberiturik.

Edukia

Idazlearen hasierako asmoak bere baitan hartzen du eta era berean gainditzen, Ripalda jesulagunaren eskari, aholku edo agindua. Egia historikoari leial izanez jokatzea da Teresaren xedea. Nahita ihes egiten du irudimenaren hegaldietatik, asmatuiko apainduraz gertaerak janztetik. Diziplina ezarri nahi dio lumari, egia historikoari lotu-loturik ibiltzeko. Hala diosku berak: “Ziurtzat jo daiteke egia osoa esango dela, ezer gehitu gabe, nik dakidala, gertatu den bezala baizik” (Hitzaurrea, 3).

Dena dela, egia historikoari leial izatea ez doa inola ere kontaktari gorespen-aira ematearen aurka eta aire hori argi-

LOS LIBROS
DE LA MADRE
TERESA DE IESVS

fundadora de los monesterios
de monjas y frayles Carme-
litas descalços de la pri-
mera regla.

*En la hoja que se sigue se diz en los li-
bros que son.*



EN SALAMANCA.

Por Guillelmo Foquel.

M. D. LXXXVII I.

*Frai Luis Leongoak egindako Santa Teresaren idazlanen argitalpena:
Teresa fundatzaile agertzen da*

ro nabari da obra osoan barrena; “gure Jauna goretsia izan dadin” dio berak. Izan ere, Jauna beste aktore bat da, lehenena eta nagusia, fundatzaileen eszenan eta segizioan.

Horrez gainera, luma erabiltzeko bere-berea duen askatasunaz, doktrinazko hainbat gauza ere tartekatzen ditu, esaterako, ama prioreen gobernu onerako gomendioak, edo mendekoek beharrezko duten zentzu ona; edo komunitate-bizitza estutzen duten gaixotasunak; gazte inozo samarren gar espiritual gehiegizkoak. Bestalde, eszenan ageri diren zenbait pertsona eredugarriren soslaia marrazten jostatzen da, esaterako, Joan Bautista Rubeorena, frai Joan Gurutzeko, Jeronimo Gracián edo Anbrosio Mariano italiarrarena. Era berean, ez dira falta moja hautatu batzuen biografia pintzelkadak ere: Kasilda Padillarena eta Beatriz Gizakundekorena, adibidez; edota emakume bitxien deskripzioa: une batean moja sartu eta komentuan agintzen hasi zen Eboliko Printzesarena; Cardona, fraide-abitua jantzi zuen emakume eremutarrarena.

Kontaktaren agertoki honetatik era askotako pertsonak igarotzen dira: batetik bestera dabiltzanak, merkatariak, elizgizonak, mandazainak, bentariak... Unean-uneko irudi eta deskripzio bizi-bizikiak ere ageri dira kontaktan barrena, esaterako Guadalquivir zalgurdi estalian igarotzea, edota Kordoban sartzetakoan izan zuten itomena, hango jende-oldearen zalapartak zezenak sartu zirela baitzirudien. Hona beraren hitzetan:

“(...) hau gauza ezereza irudituko zaizuen arren, niretzat igaro dudan unerik txarrenetakoa izan zen, jendearen zalaparta zezenak sartuko balira bezalakoa izan zelako”.

Zenbait kapitulu eta pasarte azpimarratzekotan, hauek ditut begiz jota:

- Kasilda Padillaren bokazioa kontatzen duten 10. eta 11. kapituluak.

- Pastranako fundazioa utzi eta komunitate osoa Segoviara aldatu zenekoa. Behealdeko ohar batek hau dio: “San Jose egunez etxe-sartzea eginda laster, Julian Ávilako eta Gaitán Pastranarantz abiatu ziren, eta handik bost karrotan ekarri zituzten Eboliko andrearen aurrean burua makurtu ez zuten 14 mojak; 1574ko apirilaren 7an iritsi ziren Segoviara”.
- Sevillako fundazioan gertatu zena ere atentzioa ematekoa eta polita da. Teresak berak ez du kontatzen hemen pasadizo hori, baina Ana Jesusenari (Lobera) idatzi zion gutun batetik dakigu; azpiko oharrak hau dio: “Prozesioa amaitu ondoren, Teresa Prelatuaren aurrean belaunikatu zen, eta honek bedeinkazioa eman zion; baina gero bai lotsari handia izan zuela, jendetza izugarriaren aurrean, Artzapezpikua ere bere aurrean belaunikatu eta bedeinkazioa eskatu zionean! Handik egun gutxira (ekainaren 15ean) hau idatzi zion ama Ana Jesusenari: *Pentsa dezakezu zer sentituko nuen bain Prelatu handia emakumetxo gaixo honen aurrean belaunikaturik eta bedeinkazioa eman arte ez zuela jaiki nahi ikustean, Sevillako erlijioso-talde eta kofradia guztien aurrean*” (B.M.C., 18. lib., 469. zenb.).

Beraz, kontaktetaren harian gogoetak eta aholku espiritua-lak abenturekin eta salerosketako tramiteekin gurutzatzen dira. Dena dela, ingurumari horretan, argi geratzen da loratuz doazen karmel berrien historia. Hauek dira, kronologiaren arabera, hemen datozen fundazioak: Medina del Campo (1567); Malagón (1568); Valladolid (1568); Toledo (1569); Pastrana (1569); Salamaca (1570); Alba de Tormes (1571); Segovia (1574); Beas de Segura (1575); Sevilla (1575); Caravaca (1576); Villanueva de la Jara (1580); Palentzia (1580); Soria (1581); Granada (1582); Burgos (1582).

Argitalpena

Lan honen kopia ugari egin baziren ere, argitalpena hainbat atzeratu zen. Ez zuen izan frai Luis Leongoak 1588an egindako Teresaren gainerako obra nagusien lehen argitalpenean sartzeko zoririk. Hainbat pertsona ageri ziren eskuizkribuan, une hartan bizi zirenak eta hain ongi geratzen ez zirenak; biziki go-raipatzen zen, berriz, zokoratua zegoen A. Gracián; nahigabe-ko salaketak, baina larriak zetozen. Beraz, ez da harritzekoa, orduko ingurumaria kontuan izanik, frai Luisen argitalpenean obra hau ez sartzea. Eskuizkribu bikaina, eskuz esku ibili ondoren, Felipe II.aren aginduz eta debozioz, azkenean Escorialera iritsi eta han gorde zen eta gordetzen da erlikia preziatu gisa. Ordura arte kopietan zabaldu zen, irakurleen egarrria ase nahirik.

Azkenik, aurreiritziak gaindituz, Bruselan argitaratu zen 1610ean Graciánen eta Ana Jesusenaren ekinbidez. Argitalpen honi hainbat ilungune ikusten dizkiote batzuek: Ana Jesusenak Granadako bere fundazioa gehitu zion, Teresaren ziklotik kanpo; 10. eta 11. kapituluak kendu zizkioten (Kasilda Padi-laren bokazioa kontatzen dutenak), Jeronimo Ezkerra garai hartako ahosabai fineko kritikariaren iritziz, liburuko zatirik hoberenetakoa; A. Graciánen zuzenketa desegokiak tartekatzen zaizkio originalari. Ondorengo argitalpenetan ere ez da akatsik falta, ezta Bizente de la Fuenteren faksimilean ere (1880), transkripzio oso txarrarekin. A. Silveriok eskaini zuen, Burgosen 1919an, edizio kritiko eta zehatza, ñabardura bazueta gerokoek hobetu dutena. Azken argitalpenetan, testu originala leialki errespetatuz gainera, grafia gaurko erara jarri dute irakurketa erraztearren.

Luis Baraiazarra Txertudi